



# Soziolinguistika albistaria

13. zenbakia  
2017ko apirilak 6 - 26

## Soziolinguistika Klusterreko albistekak

---

### “Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?” EHUko Uda Ikastaroa uztailean

Soziolinguistika Klusterrak EHUko XXXVI Uda Ikastaroetan Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko? izeneko tailerra antolatu du, 2017ko uztailaren 3an eta 4an izango dena Miramar Jauregian, eta bertan hizkuntza normalkuntzaren ikuspegitik, ahozko hizkuntza eskol...

### Zabalik da EHUko “Euskararen erabilera: egoera, bilakaera eta norabidea, datuen argitan” Uda Ikastaroan izen emateko aukera

Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatu duen ikastaro da honakoa eta 2017ko uztailaren 20an eta 21an Donostian burutuko da, Inkesta Soziolinguistikoaren eta Euskal Herriko VII. Kale Neurketaren 2016ko datuak aztertu eta ondorioak ateratzeko asmoz.

### “Gipuzkoa berdinago” egitasmoa aurkeztu da gaur

“Gipuzkoa berdinago” egitasmoa Soziolinguistika Klusterrak eta EHU-k elkarlanean egin duten “Jendurrean Erabili” proiektuaren baitan kokatzen da. “Jendurrean Erabili” proiektuak erakunde eta enpresen jendurreko euskarazko komunikazioan laguntzeko balia...

### Maiatzean, Hizkuntzen kale-neurketen aurkezpen gehiago

Astigarragan, Lezon, Oñatin, Sakanan, Erandion, Aramaion, Zalbidarren eta Hernanin egingo ditugu maiatzean zehar bertako hizkuntzen erabileraren kale-neurketa emaitzen aurkezpenak. Jarraian dituzue jendurreko hitzaldietako egun zehatzak.

## **Bartzelonan izan gara Hizkuntza Indigenen eta Eremu Urrikoen Biziberritzeari buruzko kongresuan**

Apirilaren 19, 20 eta 21ean Hizkuntza Indigenen eta Eremu Urrikoen Biziberritzeari buruzko lehen nazioarteko kongresua egin da eta bertan izan dira Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoko lau kide.

## **BAT Soziolinguistika Aldizkariak ia 6.000 bisita ditu hilero**

[DIALNETen](#) bitartez [BAT Soziolinguistika](#) Aldizkariak jasotzen dituen bisita-kopurua igotzen doa urtez urte; 2016. urtea bitartean, 5.000 eta 6.000 bisita izan ditu aldizkariak hilero, eta 2017ko datuek joera hori berresten dutela jakin dugu dagoeneko.

## **Ikerketak**

---

### **Gurasoen erdiek gaztelaniara jotzen dute, haurrak aurrean ez daudenean**

Tolosako Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeen atarietara bertaratu, eta ikastetxe horietako gurasoen hizkuntza ohiturak jasotzea izan da Galtzaundi euskara taldearen azken egitekoetako bat. Guztira, 618 elkarrizketatako datuak jaso dituzte, eta hainbat ondor...

### **O CCG ofrece novos datos sobre o comportamento lingüístico da mocidade**

O Consello da Cultura Galega publica o informe Prácticas e actitudes lingüísticas da mocidade en Galicia, elaborado co obxectivo de estudar as causas que explican a disociación existente na mocidade entre unhas actitudes positivas cara á lingua galega e un nivel...

## **Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak**

---

### **Lurraldea eta Hizkuntzari buruz, begirada osagarrietatik**

“Lurraldea eta Hizkuntza. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa” graduondokoaren baitan, ALTERNATIBAK saio irekia egingo dugu larunbatean.

### **Euskararen transmisioari buruzko VII. mintegia**

Euskararen erabileraz arduratzen garenok, ezin dugu erabilerarako ezinbestekoa den transmisioaren gakoa alde batera utzi, transmisioak gaitasuna ez ezik, hizkuntzarekiko baloreak eta ardura ere dakartzalako. Dakiguna gure ondorengoei ematen diegunean hizkuntza horrek...

## "Euskararen etorkizuna" lan-taldeak proposamen berritzailea eta hitzordu bat dakar

Eusko Ikaskuntzako 'Euskararen Etorkizuna' eremutik euskararen biziberritzean interesa duten eragile eta gizabanako oro gonbidatu nahi ditu 2017ko ekainaren 2an Gasteizen antolatuko den mintegira.

### Gasteizko mintegia: bi ikerketa lerro eta eragileentzat ekintza proposamenak

Martxoaren 31n 'Gazteak-euskara binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak' mintegia ospatu zen ezaguera eta erabileraren arteko harremanetan sakondu eta hizkuntzaren erabilpena areagotzeko bideak aztertzeko.

### Lenguas minoritarias en Europa y estandarización (Jaca)

Fecha evento: 19/07/2017 to 21/07/2017. Director/Directores: Javier Giralt Latorre, Profesor Titular de la Universidad de Zaragoza. Más informació.

### Accessible en línia el vídeo del seminari Complèxica 13 – «Language Policy in Canada and Spain»

Ja podeu consultar el vídeo del tretzè seminari de la sèrie Complèxica – Seminaris per a la transdisciplinarietat, a càrrec de Kenneth McRoberts (Universitat de York, Toronto), que es va celebrar el 5 d'abril del 2017.

## Liburuak eta artikulu zientifikoak<sup>1</sup>

---

### La situation sociolinguistique dans la communauté autonome basque

Le présent numéro des Cahiers internationaux de sociolinguistique, dédié à Thierry Bulot, est consacré à la réalité sociolinguistique du basque dans la Communauté autonome d'Euskadi (CAE), s'agissant d'une région de la péninsule Ib...

### Variabls sociolingüístiques en l'adquisició del català com a llengua d'acollida en el context multilingüe barcelonès – Laura Estors Sastre

Diversitat lingüística al voltant del català com a llengua comuna.

---

<sup>1</sup> Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

## «De com dos models lingüístics escolars “bilingües” poden cercar objectius contraposats » nou apunt del blog “Amb certa calma-qüestions de llengua i societat”

El dissabte 8 d'abril, Xavier Vila va escriure un nou apunt al seu blog titulat «De com dos models lingüístics escolars “bilingües” poden cercar objectius contraposats», una reflexió fruit de la taula rodona L'evolució de l'ensenyament de llengües: ...

## Bestelako albisteak

---

### Islandiera, eten digitalean

328.000 lagun inguru bizi dira Islandian, eta islandiera da bertako hizkuntza nagusia. Haren geroa, ordea, arriskuan egon liteke, ohartarazi dutenez. Ingelesa ari da barreiatzen, batez ere masa turismoaren eta ahots bidez kontrolatutako gailuen eraginez. Azken horiet...

### Lingolang unitate didaktikoak Erreterian

Lingolang gure herrietako hizkuntza aniztasuna azalarazteko asmoz, euskaratik, aniztasunean eta parte hartzea sustatuz sortutako proiektua da. Proiektuak bi tresna biltzen ditu: [www.lingolang.net](http://www.lingolang.net) webgunea eta Lingolang uniate didaktikoak.

### Txerra Rodriguez soziolinguistaren gogoeta batzuk eztabaidan:

- Ziklo bat amaitu al da?
- 30 urte: nukleo sinbolikoa

### Hizkuntza-lankidetzak Beninen, eta Guatemalan:

- Bariba hizkuntza eskolan txertatzeko lankidetzak
- Kaqchikel hiztun komunitatea garatzeko lankidetzak

